Campaña Mundial por la
EDUCACIÓN
Coalición española
www.cme-espana.org



HEZKUNTZA UKATUA, ETORKIZUN ZAPUZTUAK: NERABEAK MUGIKORTASUNEAN ERDIALDEKO AMERIKAKO HEZKUNTZA-LARRIALDIAREN AURREAN

LABURPEN EXEKUTIBOA

Inoiz ez bezalako hezkuntza-larrialdiak jota dago Erdialdeko Amerika. Izan ere, jendea kanporatzen dute, desplazatua dago eta mugikortasun behartuan dabil. Gertakari ikusezina da askorentzat, eta hondagarriak dira zinez jendearentzako eta gizarte arloan dituen ondorioak. Lehen eta bigarren mailako iturriak erabili dituen ikerlan kualitatibo batean oinarrituz, txosten honek aztergai du zer arrazoik eta zer oztopo instituzionalek eragozten dieten mugikortasunean diren nerabeei hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa eskuratzea El Salvadorren, Hondurasen eta Guatemalan. Bildu dugun ebidentziak berresten du hezkuntza eskuratzeko eskubideak egiturazko erronkei aurre egin behar diela. Hainbat gauza dira erronken eragileak, hala nola behin eta berriz gertatzen diren larrialdiak, desberdintasun etengabeak, instituzioen arteko koordinaziorik eza, finantzazio urriak eta politika publikoetan diren atzerapen historikoak.

Indarkeria, natur fenomenoek eragindako hondamendiak, pobrezia eta gizarte hausturak direla eta, eskolatzea prozesu zatikatua da (UNESCO, 2025; Humanitarian Action, 2023). Izan ere, milaka nerabe gelditzen dira bidean edo itzuleran harrapaturik, eta ikasgela eskura izateaz harata doan esklusioari egin behar diote aurre: hau da, ez dute laguntza psikosozialik, eta genero indarkeria eta bazterkeria pairatzen dituzte, eta ez dago haientzat berriz ere gizarteratzeko ibilbide malgurik. Mugikortasunean dabiltzan nerabeen hezkuntza-esklusioa, hezkuntzarako eskubidea urratzeaz gain, oztopoa ere bada garapen kolektiborako, eskualdearen ekitaterako eta bakerako.

Larrialdi hori normalizatzeko eta kroniko bihurtzeko arriskua dago; beraz, iritsi da hori aitortzeko ordua. Bide bakarra dago hezkuntza-sistema egiazki inklusiboak, seguruak eta erresilienteak eraikitzeko, hots, denon artean era antolatuan ekinez, horren bidez, finantzazio bide eraginkorrak eta identifikazio eta erregistro sistemak ezartzeko, bai eta dibertsitatera egokituta egongo diren eskola modalitate malguak eta irakasleendako prestakuntza antolatzeko ere. Espainian Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainan ari garenok oinarrizko eskubidetzat jotzen dugu hezkuntza, hau da, ez da krisi garaian galdu beharreko pribilegioa. Hori dela eta, gaur egun, Larrialdi Hezkuntzan epe luzera inbertitzea ez da abaguneari lotuta dagoen erantzuna, inbertsio estrategikoa baizik eskualdearen egonkortasuna sustatzeko.

Krisi isila zenbakietan

Hezkuntzak eskualdean bizi duen “krisi isila” ikusirik, ekintza irmoa behar da:

- Mundu osoan, 234 milioi haur eta nerabe baino gehiago bizi dira krisi luzeek jota; hala ere, larrialdi hezkuntzak munduko giza laguntzaren % 3 bakarrik jasotzen du.
- El Salvador, Guatemala eta Honduras herrialdeek egoera konplexuari egiten diote aurre: indarkeria, kriminalitatea, egiturazko pobrezia, eta muturreko arriskua natur hondamendien aurrean (Germanwatch, 2025).
- Haurrak eta nerabeak eskualdeko migrazio fluxuen % 14 inguru dira.
- Nerabeen erdiek baino gutxiagok egiten dute bigarren hezkuntza bere osoan Hondurasen eta Guatemalan, eta % 60k besterik ez, El Salvadorren.
- Hondurasko biztanleen % 63, Guatemalako biztanleriaren % 56 eta El Salvadorreko herritarren % 30.3 pobrezian bizi dira gaur egun.

Lotura Hirukoitzaren ikuspegia

Premiazkoa da hezkuntza giza eta garapen erantzun ororen ardatz estrategikoa izatea. Gaur egun, Erdialdeko Amerikan, Larrialdi Hezkuntza da estrategia nagusia eskubideak babesteko eta egonkortasuna izateko; dena dela, askotan, desafioak ez datoz bat larrialdiaren ohiko parametroekin, eta horrek erantzun antolatua mugatzen du.

Larrialdi Hezkuntzak oinarri solidoa eskaintzen badu ere, giza mugikortasunaren dinamikek eta esklusioaren egiturazko faktoreek ikuspegi horretaz haratago jotzea eskatzen dute. Hori dela eta, txosten honek Lotura Hirukoitzaren ikuspegia aztertu du, eta ikuspegi horrek nazioarteko lankidetzaren funtsezko hiru dimentsio hartu ditu barne: giza ekintza, garapen jasangarria eta bakearen sustapena. Ikuspegi hori aplikatzeak esku-hartze koordinatua ahalbidetzen du, berehalako beharrei erantzuteko, baina baita etorkizunekoei ere:

- Giza Dimentsioa: hori ezinbestekoa da, berehalako babes erantzunak, ikaskuntzaren jarraipena eta laguntza psikosoziala krisi egoeretan bermatzeko.
- Garapen Dimentsioa: Hezkuntza politika egokiak eraiki behar dira, hezkuntza egiturazko eragilea izan dadin desberdinkeriaren eta mugikortasun behartuaren aurka, hezkuntza-sistemak indartuz, erresilienteak eta moldakorrak izan daitezen.
- Bake Dimentsioa: eskolak, premiaz, babes, berradiskidetze eta gizarte kohesiorako gunea izan behar du, indarkeriazko eta migrazio behartuko zikloak hausteko gai izango dena.
- Esku-hartze partzialak ez dira aski erronka horren muntari erantzuteko: hiru dimentsio horiek aldi berean barne hartuko dituen ikuspegia behar da.

Gomendioak

I. Nazioarteko Lankidetzarako:

- Hainbat urtetako finantzamendu zuzena eta malgua lehenestea, hezkuntza-erantzunak errealitate desberdinetara egokitzeko, generoari, etniari eta desgaitasunari begira.
- Gutxienez giza laguntza guztiaren % 10 bideratzea hezkuntzara, sarbideaz haratagoko mekanismoak ziurtatuz: kalitatea, segurtasuna, ekitatea eta ongizatea.

- Funtsak zuzenean bideratzea tokiko eragileengana eta hezkuntza-azpiegitura erresilientean inbertitzea, Eskola Seguruen Esparru Integralaren arabera.

II. Gobernu Nazionaletarako:

- Identifikazio eta erregistro arloko sistema integratuak ziurtatzea, hau da, hezkuntza, babesa, migrazioa eta osasuna, informazio atalkatuaren bidez jarraipena egiteko eta arreta pertsonalizatua emateko.
- Lotura hirukoitzaren ikuspegia testuingurura egokitzea, larrialdi hezkuntza eragilea izan dadin egiazki erresilientziari eta bakeari begira, protokoloak harmonizatuz nerabeak berriro hezkuntzan sartzeko eta aurretiazko ikasketak aitortzeko.
- Hezkuntza-modalitateak zabaltzea (aurrez aurre, urrutikoak, azkartuak), inbertsio jarraitua eginez irakasleentzako prestakuntzan eta laguntza psikosozialean.

III. Gizarte Zibilerako:

- Estrategiak lurralde bakoitzera egokitzeko lana gidatzea eta era integralean parte hartzea gobernantzan eta hezkuntza gainbegiratzeko lanean.
- Ebidentzia, lekukotasunak eta analisiak sortu, sistematizatu eta partekatzea bai esklusioaz, bai mugikortasunean dabiltzanen hezkuntza integraziorako ibilbideez, sentsibilizatzeko eta politika publikoetan eragiteko.
- Erakunde multilateralen, sektore pribatuaren eta komunitateen arteko aliantzak sustatzea, irtenbide berritzaileak eta kulturari begira egokiak geo eta maila handiagoan ezartzeko.

Agenda partekaturantz: zeharkako printzipioak eta konpromisoak

Gomendioak egiazko aldaketa bihurtuko badira, funtsezkoa da Estatuek, tokiko eragileek, gizarte zibilak eta emaileek irmotasunez eta erantzunkidetasunez jokatzea. Izan ere, tokiko eragileak ardatz eta gidari dituen lankidetza multilateral aktiboen bidez eta borondate politiko berritu baten bidez bakarrik ahalbidetuko da hezkuntza-sistema egiazki inklusibo, erresiliente eta seguruak eraikitzea, aukerak berma ditzaten, eskubideak itzul ditzaten eta gizarte kohesioa eskualdean indartu dezaten.

Campaña Mundial por la
EDUCACIÓN
Coalición española
www.cme-espana.org

CME_es @CME_es @CMEespana

La CME en España está liderada por:

Ayuda en Acción · educo educar cura · entreculturas ONG · JESUITA · MADRE CORAJE · PLAN INTERNATIONAL

Argitalpen honek Espainiako Lankidetzaren laguntza jaso du, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) bitartez; dena dela, argitalpenaren edukia Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren Espainiako Koalizioaren ardura da, ez beste inorena, eta ez du nahitaez AECIDen jarrera erakusten.

Con la financiación de:

MINISTERIO DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA Y COOPERACIÓN · aecid · cooperación española